



**Arartekoaren 2019R-89-17 Ebazpena, 2019ko urriaren 9koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin zuela jotzeko ebazpena, dokumentazio-errekerimendua okerreko helbidean jakinarazi ziotelako, eta berriz azter ditzala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko arrazoiak, betetzen baititu prestazio horren onuradun izateko betekizunak.**

### Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu izanarekin. Kexagilearen esanetan, 2016ko martxoaren 9an eskatu zuen lehenengo aldiz diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko. Ondoren, 2016ko abuztuaren 8an, berriz ere egin zuen eskaera bera. Bost hilabete igaro baziren ere ez ziotenez erantzun formalik eman bere eskaerari, 2017ko urtarrilaren 11n, Lanbideren bulegora jo zuen, bere kasuagatik galdetzeko. Bisita horretan, Lanbideko langileek jakinarazi zioten bazela Lanbideren ebazpen bat (2016/RGI/017456), 2016ko azaroaren 22koa, eta, haren bidez, bere eskaerari erantzun ziola erakunde horrek; hain zuzen ere, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortu baina etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu egin zion, arrazoi hau zela-eta:

*-"Tener un contrato de co-arrendamiento sin tener una situación de extrema necesidad".*

Une horretan, aipatutako ebazpenaren kopia eman zioten eskura (2017/12013 egiaztagiriak frogatzen du hori). Horren bitartez, 2016ko abuztuaren 10etik urte bereko azaroaren 30era bitarteko aldiari (3 hilabete) zegozkion diru-sarrerak bermatzeko errentaren atzerakinak onartu zitzaizkion.

Lanbidera joan zenean, erakunde publikoak jakinarazi zion horren aurretik hainbatetan saiatu zela ebazpena postaz jakinarazten, baina erakundearen datu-basean ageri zen helbide batera. Hala ere, ohartu ziren helbidea ez zegoela behar bezala jasota, erakunde publikoak "oker informatiko" bat egin zuelako hura erregistratzeko orduan. Hori dela eta, hasieran bidalitako posta bidezko jakinarazpenak itzuli egin zituen Correosek, eta, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 42. Artikuluan papereko jakinarazpenetarako jasota dagoen prozedurari jarraituz, ordu desberdinetan jakinarazteko zenbait saiakera egin ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu ziren.





Egoera horren berri izan zuenean, kexagileak, egun horretan bertan, errolda-ziurtagiriaren eta NANaren kopiak aurkeztu zituen Lanbideko erregistro orokorrean. Hori frogatzen du 2017/12473 egiaztagiria, han Lanbidek hauxe dioelako *Laburpena* izeneko atalean:

*“Presenta volante de empadronamiento y copia del DNI como justificación de su dirección NO REGISTRADA CORRECTAMENTE EN EL APLICATIVO”.*

Etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu ziotela eta diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko ebazpena berandu jakinarazi ziotela jakin ondoren, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, adierazteko ez zegoela ados ebazpen horrekin, ez eta hasieratik jarraitutako prozedurarekin ere (hala frogatzen du 2017/15054 egiaztagiria). Halaber, etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera aurkeztu zuen berriz ere —Lanbideren 2017/15077 egiaztagiria—. Handik egun batzuetara, kexa aurkeztu zuen Arartekoan.

Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa, eta, horren ondoren, lankidetzak eskatu zion Lanbideri, adierazitako egitateari lotuta. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion, baina, errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzak eskaerari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak lehendabiziko txosten bat igorri zion Arartekoari, honako hau adieraziz:

*-“ Horri dagokionez, Lanbidek honako hau erantzun zion Arartekoari: 2016ko martxoaren 9an, DSBE/EPO jasotzeko eskabide bat aurkeztu zuen (xxxx)K (eskabidearen zenbakia: xxxxx baina eskabide hori ukatuzat deklaratu zen, 2016ko apirilaren 15eko errekerimenduei ez zuelako erantzuten. Nabarmendu beharrekoa da Correosek Lanbidera itzuli zituela errekerimendu horiek, eta EHAAn argitaratu zirela. Geroago, 2016ko abuztuaren 8an, beste eskabide bat aurkeztu zuen interesdunak (eskabidearen zenbakia: xxx), baina eskabide hori ukatuzat deklaratu zen 2016ko urriaren 22an, 2016ko martxoaren 7an eskatutako dokumentazioa ez baitzuen aurkeztu.*

*Alabaina, (XXX)k aurreko espedietean falta zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen eta, herritarrari mesede egiteko, eskabidea izapidetzen ari zen bulegoak, ofizioz, beste espediente bat hasi zuen, aurreko ukapenaren dataren hurrengo egunean, hau da, 2016ko abuztuaren 10ean; espediente berri horri xxxxx zenbakia eman zitzaion. Espediente horretan DSBE esleitu zitzaion interesdunari, baina EPO ukatu egin zitzaion, errentari bat baino gehiago zegoelako eta, horretaz gain, interesduna larrialdi handiko egoeran ez zegoelako.*

*Oinarri juridikoa hau da: Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretua, 6.2 artikulua. Titular bat baino gehiago batera gertatzea eta prestazioen gehieneko kopurua etxebizitza edo bizitoko bakoitzeko.*



2.- *Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetz-unitate edo gehiago bizi badira, beren artean inolako ahaidetasun-loturarik izan gabe Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gehienez ere Etxebizitzako Gastuetarako bi Prestazio Osagarri eman ahalko dira, Hoirerik eskaera-ordena kontuan izanda, betiere alde aurretik prestazioak baliatzeko aukerak Beteta.*

*Ondorio horietarako, larriki handiko egoera dagoeka ulertuko da prestazioa eskatzen duen pertsonaren ditu-sarrera konputagarriak inolako baliabiderik ez duen persona bakar bati legokiokeen Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errentaren %75en azpitik daudenean, edo erreferentziako oinarrizko Gizarte-zerbitzuaren ustez larrialdi handiko egoeran dagoenean.*

3.- *Hori guztia dela-eta, etxebizitzaren erabilera partekatua oinarri duen kontratu modalitatea edozein izanda ere izango da aplikatzekoa aurrekoa: azpierrementamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua. Halaber, Bizikidetz-unitateei buruzko Monografikoan honako hau jasotzen da: MONOGRAFIKOAK Bizikidetz-unitateak (BATERAKO ERRENTAMENDUAK) Errentamendu-kontratu baten titularra den pertsona, edozein modalitatetan, b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren batekinn lotuta ez dagoen beste pertsona batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi dena (BU familiarra)."*

Azkenik, Lanbidek hauxe jakinarazi zion erakunde honi bere txostenean:

*- " Ondorio horietarako, premia gorriko egoera bat dagoela ulertuko da prestazioa eskatzen duen pertsonaren diru-sarrera konputagarrien maila txikiagoa bade batera baliabiderik ez duen pertsona bakar bati lekiokoen gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako oinarrizko errentaren zenbatekoaren % 75a baino.*

*Dekretuak esaten duenean bizikidetz-unitate hori "errentamendu-kontratu baten titularra den pertsonetako bakoitzak osatzen duela, etxebizitza baten errentamendu-kontratuaren titular-kide diren pertsonen buruz ari da (baterako errentamenduak). Errentamenduko-kontratu beraren titular diren pertsonak soil-soilik izan daitezke baterako errentari ez badute elkarren artean inolako loturarik eta/edo ahaidetasunik, eta neurri berean partekatzen badituzte etxebizitza erentatzearen ondoriozko gastuak."*

Hau da, Lanbideren lehenengo lankidetz-txostenaren bidez jakin zuen erakunde honek kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko beste eskaera bat aurkeztua zuela aurretik, 2016ko martxoan. Eskaera horretan atzera egin zuela jo zen kexagileak ez zielako erantzun Lanbidek egin zizkion dokumentazio-errekerimenduei, hain zuzen ere horiek jakinarazteko arazoak izan zirelako, Lanbidek ez zuelako behar bezala erregistratu kexagilearen jakinarazpenetarako helbidea. Hortaz, 8 hilabete igaro ziren prestazioak aitortzeko lehenengo eskaera Lanbiden aurkeztu zenetik (2016/03/09) diru-sarrerak



bermatzeko errenta aitortzeko ebazpena eman arte (2016/11/22). Nolanahi ere, 2017ko urtarrilaren 13an jakinarazi zen ebazpen hori, aurrez aurre, etxebizitzarako prestazio osagarriaren ukapenarekin batera (ia bi hilabete gehiagoko atzerapena ekarri zuen horrek). Guztira 10 hilabete kexagileak lehendabiziko eskaera egin zuenetik.

Aitzitik, ebazpen horretan diru-sarrerak bermatzeko errentaren atzerakinak aitortu zitzaizkion, baina 3 hilabetekoak soilik. Hori guztia erakunde publikoak aitortutako premisa oinarri hartuta, alegia, Lanbiden egindako oker informatiko baten ondorioz kexagilearen jakinarazpenetarako posta-helbidea ez zela behar bezala erregistratu, herritar horrek aurkeztutako diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren lehenengo eskaera izapidetzeko prozedura hasi zenetik (2016ko martxoa). Arartekoak uste du egitate horrek eragina izan zuela bai lehenengo eskaeran atzera egin zuela jotzeko orduan, bai bigarren eskaera — 2016ko abuztuaren 8koa— ukatzeko orduan. Nolanahi ere, bi prestazio horiek jasotzeko eskubidearen aitortzea 9 hilabete berandutu zen, eta 3 hilabeteri zegozkion atzerakinak bakarrik aitortu zitzaizkion.

Kexagileak pertsona bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen zuen. Bi herrikiderekin partekatzen zuen pisua, eta haietako batek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zituen. Errentamendu-kontratua hiruren izenean zegoen.

Erakunde publikoak bidalitako lankidetz-txostena aztertu ondoren, erakunde honek bigarren informazio-eskaera bat igorri zion Lanbideri, eskatuz informazio osagarria helarazteko, eta erakunde horrek egindako alde aurretiko analisiaren zehaztapenen bat emateko. Horri erantzunez, gaingiroki, Arartekoari hasiera batean helarazitako balorazioa berretsi zuen Lanbidek.

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

#### Gogoetak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren lehenengo eskaera 2016ko martxoaren 9an aurkeztu zuen interesdunak. Eskaeran atzera egin zuela jo eta artxibatu egin zen, jakinarazteko arazoak zirela tarteko dokumentazio-errekerimenduei erantzun ez ziela-eta. Jakinarazteko arazoak urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 40.-49. artikuluetan araututa daude, zehazki 42. artikuluan, "Jakinarazpenak paperean egitea" izenekoan.

Nagusi den doktrinaren arabera, administrazio jarduleak arreta handiz jokatu behar du, administrazio-espeditarearen izapidetze-prozesu osoan zehar, jakinarazpen pertsonalak benetan egin daitezzen. Araudian xedatutako jakinarazpen-sistema



eraginkorra da, bakar-bakarrik, helbide ezagunik ez duten subjektu ezezagunen kasuan. Aitzitik, ezin da erabili herritarren prozedura-bermeei kalte eginez, baldin eta administrazioak, gutxieneko arreta jarritz, interesdunaren nortasuna eta jakinarazpen pertsonalak bidaltzeko leku egokia jakin badezake.

Hori dela eta, lehenengo eskaera egin zenetik aplikatutako jakinarazpen-araubideari dagokionez, gure ustez, bereziki garrantzitsua da Konstituzio Auzitegiaren 2008ko otsailaren 25eko epaia, hauxe baitio jakinarazpenei buruz:

*-“...el emplazamiento edictal constituye un remedio último de carácter supletorio y excepcional, que requiere el agotamiento previo de las modalidades aptas para asegurar en el mayor grado posible la recepción de la notificación por el destinatario de la misma, a cuyo fin deben de extremarse las gestiones en averiguación del paradero de sus destinatarios por los medios normales, de manera que la decisión de notificación mediante edictos debe fundarse en criterios de razonabilidad que conduzcan a la certeza, o al menos a una convicción razonable, de la inutilidad de los medios normales de citación (por todas, STC 158/2007, de 2 de julio , FJ 2).(...)*

*“... la Administración sancionadora no podía limitarse a proceder a la notificación edictal sin desplegar una mínima actividad indagatoria en oficinas y registros públicos para intentar determinar un domicilio de notificaciones alternativo en que pudiera ser notificada personalmente”*

*(...)“Por todo lo cual, esta notificación automática en edictos, sin la previa y necesaria diligencia de averiguación del domicilio, vulnera el ordenamiento jurídico en los términos establecidos por la citada Jurisprudencia Constitucional.(...)”*

*En consecuencia, se han de anular los actos recurridos y los dictados con posterioridad en ejecución de los mismos (artículo 63 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre) ”.*

Horren aurretik, Konstituzio Auzitegiak doktrina hori bera defendatu zuen, martxoaren 24ko 54/2003 Epaian. Halaber, doktrina horri berari eutsi diote honako epai hauek, besteak beste —azkenak bakarrik aipatuko ditugu—: Auzitegi Gorenaren 2. atalaren 2015eko abenduaren 16ko epaiak (CAS 1304/2014), auzitegi bereko 1. atalaren 2017ko martxoaren 25eko eta apirilaren 27ko epaiak (RCA 799/2016 eta 1001/2016) eta 5. atalaren 2017ko urtarrilaren 30ekoak (RCA 581/2015).

Arartekoaren iritziz, agiri-errekerimendua jakinarazi ez izanak ondorerik gabe uzten du errekerimendu hori, eta baliogabetu egin behar da. Horregatik, atzera jo eta une hartara eraman beharko litzateke espedientea. Administrazio-egintza bat legitimoa izan dadin, administrazio-egintzen betekizunak bete behar ditu. Agiri-errekerimendu batek ondoreak izan ditzan, jakinarazi egin behar da. Horregatik, jakinarazpenik

egin ez denez gero, ez da gauzatzerik izan. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 39.2 artikuluan ezartzen duenez: "Egintzaren efikazia geroratu egingo da egintzaren edukiak hala eskatzen badu edo jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goragoko onespeneren mende badago".

Auzitegi Gorenaren 2012ko uztailaren 3ko epaiak (kasazio-zenbakia: 2511/2011 ) honako doktrina hau ezarri zuen:

*"... sin duda, el señalamiento por los interesados de domicilio donde desean ser notificados es independiente de la forma en que el procedimiento se inicia, de oficio o a instancia de parte, siendo un derecho de los interesados en el procedimiento ---también ejercitable en los procedimientos incoados de oficio---, y, desde luego, la designación de representante con todas garantías legales y de un domicilio específico para notificaciones, impide la validez de las notificaciones efectuadas sin tener en cuenta tales designaciones, que se convertirían así en inoperantes, pues una interpretación contraria vaciaría de contenido tanto la posibilidad de designar representantes ( ex artículo 32 de la LRJPA ) como la de designar domicilio a efectos de notificaciones."*

39. artikulua 2. atalaren arabera, eraginkortasuna atzeratu egingo da baldin eta egintzaren edukiak hala exijitzen badu, edo badin eta, horretarako, aldez aurretik, hura jakinarazi edo argitaratu behar bada, edo goi-mailako beste organo batek onetsi behar badu. Arartekoaren iritziz, dokumentazio-errekerimendua eraginkorra ez izateak berekin ekarri behar du berriz aztertzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaera artxibatzeke ebazpena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015, urriaren 1ekoa) hauxe xedatzen du 39.1. artikuluan: : "Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada".

*"2. Egintzaren efikazia geroratu egingo da egintzaren edukiak hala eskatzen badu edo jakinarazpenaren, argitalpenaren edo goragoko onespeneren mende badago."*

Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, berriz aztertu beharko litzateke eskaera artxibatzeke ebazpena, lehenengo dokumentazio-errekerimendua beste helbide batera bidali zelako, Lanbideren oker baten ondorioz, eta horrexek ekarri zuelako errekerimenduari ez erantzutea. Legeak agindutako moduan ez jakinarazteak atzeratu egiten du egintzaren eraginkortasuna, baldin eta egintzak kaltea eragin badiezaioke hartzaileari.

Hortaz, dokumentazio-errekerimenduak ez zuen ondorerik izan, ez zituen betetzen bere helburua lortzeko ezinbesteko baldintza formalak edo babesgabetasuna eragin zuen, interesdunak ezin izan ziolako erantzun (Administrazio Publikoen

Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 48. artikulua). Egitezko okerra — espedientean jasotako dokumentuetatik ondorioztatutakoa— berrikuspen-errekurtso bereziaren oinarri ere izan daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 125. artikuluekin bat. Beraz, justifikatuta dago interesdunak eskaeran atzera egin duela jotzeko eta espedientea artxibatzeko ebazpena berrikustea.

Lanbide, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren bigarren eskaera aztertzean, okerraz jabetu zen, eta erabaki zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzea bigarren eskaera hori egin zen egunetik (2016ko abuztua). Nolanahi ere, Arartekoaren iritziz, lehenengo eskaera artxibatzeko ebazpena berrikusi beharko zukeen; izan ere, ezagutzen ez zuen errekerimendu bati ez erantzuteak ekarri zuen espedientea artxibatzea.

2. Etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena (2016ko azaroaren 22koa) honexek eragin zuen: *"Tener un contrato de arrendamiento, sin tener una situación de extrema necesidad"*. Ez zuen beste xehetasunik eman, ez eta adierazitakoa egiaztatzeko edo justifikatzeko txosten ekonomikorik ere.

Lanbidek urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa) 6.2. artikuluari —Titular bat baino gehiago batera gertatzea eta prestazioen gehieneko kopurua etxebizitza edo bizitoki bakoitzeko— heltzen dio ukapenaren oinarri juridiko gisa, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 9.1.c) artikuluari lotuta. Artikulu horrek arautzen du noiz osatzen den bizikidetzaren unitatea baldin eta ahaidetasun-harremanik ez duten bi bizikidetzaren unitatek edo gehiagok etxebizitza partekatzen badute. Horri lotuta, 18/2008 Legearen 9.1.c) artikulua haxe ezartzen du:

*"1.- Lege honen ondorioetarako, honako pertsona edo talde hauek izango dira bizikidetzaren unitateak (...) c) Egiaztatzeko moduko premia larriko egoeretan, b) idatz-zatian aurreikusitako lotura horietako edozeinen bidez lotuta ez dauden beste batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren pertsonetako bakoitza. Erregelamendu bidez zehaztuko dira halako egoerak."*

Era berean, urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuaren (Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriari buruzkoa) 6.2. eta 6.3. artikuluek haxe ezartzen dute:

*"Titular bat baino gehiago batera gertatzea eta prestazioen gehieneko kopurua etxebizitza edo bizitoki bakoitzeko. (...)"*

*2.- Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetzaren unitate edo gehiago bizi badira, beren artean inolako ahaidetasun-loturarik izan gabe Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gehienez ere Etxebizitzako Gastuetarako*

*bi Prestazio Osagarri eman ahalko dira, horien eskaera-ordena kontuan izanda, betiere aldez aurretik prestazioak baliatzeko aukerak beteta.*

*Ondorio horietarako, larrialdi handiko egoera dagoela ulertuko da prestazioa eskatzen duen pertsonaren diru-sarrera konputagarriak inolako baliabiderik ez duen pertsona bakar bati legokiokeen Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errentaren % 75aren azpitik daudenean, edo erreferentziako oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ustez larrialdi handiko egoeran dagoenean.*

*3.- Hori guztia dela-eta, etxebizitzaren erabilera partekatuak oinarri duen kontratu modalitatea edozein izanda ere izango da aplikatzekoa aurrekoa: azpierrentamendua, baterako alokairua, ostatu hartzea eta gelen alokairua."*

Erakunde honek berriz ere dio oso garrantzitsua dela ebazpenak hobeto arrazoitzea, labur aipatuz ebazpen horiek oinarri dituzten egitateak eta zuzenbideko oinarriak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1eko) 35. artikularekin bat etorritik. Etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena irakurrita, ezin da jakin zergatik jo den kexagilea ez dagoela "premia larriko egoeran"; izan ere, diru-sarrerarik ez zuelako eskatu ditu diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria.

Gabezia hori ebazpen askotan aipatu izan du Arartekoak, bereziki *Diagnostikotxostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen*, 2017 izeneko dokumentuan. Halaber, gai hori hain garrantzitsua denez, Arartekoaren urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorrean ere jorratu zen.

Ebazpenak behar bezala arrazoitu beharra bereziki garrantzitsua da eskubide subjektibo bat —zehazki, oinarrizko premiak asetzeko prestazioak jasotzea— ukatzen zaionean herritar bati, eta horixe gertatu da kexak hizpide duen kasuan.

Hizpide dugun kasuan, 3 lagunek (pertsona bakarreko 3 bizikidetz-unitatek) partekatzen dute etxebizitza, alokairu-araubidean, eta horietako bi diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen ari dira edo horiek jasotzeko eskaera egin dute. Beraz, gizarte-bazterketako egoeran daude, etxearen alokairuaren gastua partekatzen dute, eta prestazioak behar dituzte beren oinarrizko beharrak asetzeko. Zantzu horiek, lehen batean, premia larriko egoeran daudela egiaztatuko lukete.

Beste alde batetik, kexagileak ez du diru-sarrerarik izan lehenengo eskaera (2016ko martxoaren 9koa) egin zuenetik. Hortaz, premia larriko egoeran legoke, jo baita lehenengo eskaera egin zuen unean zituen diru-sarrera konputagarriak txikiagoak zirela diru-baliabiderik ez duen pertsona bakar bati legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren hileko zenbatekoaren % 75 baino.

3. Ondorioz, azaldutako guztiagatik, erakunde honen iritziz:





-Alde batetik, herritar horrek Lanbideren dokumentazio-errekerimenduei erantzun ez ziela-eta —erakunde publikoak kexagileak adierazitako jakinarazpenetarako helbidea erregistratzeko orduan egindako oker informatikoen ondorioz— diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren lehendabiziko eskaeran atzera egin zuela jotzeko eta espediente artxibatze ebazpenak ez luke ondorerik izan beharko, Lanbideri bakarrik egotz dakioken oker batek (dokumentazio-errekerimendua beste helbide batean jakinarazi zuen) eragin zuelako diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaera zuzendu ezin izatea. Kontuan izan dokumentazio hori hura aurkeztu behar zuela jakin zuenean aurkeztu zuela kexagileak. Beraz, dokumentazioa prestazioen lehenengo eskaera izapidetzeko prozesuan aurkeztu izan balu, baliteke 2016ko martxotik aurrera aitortu izana diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea.

-Gainera, erakunde publikoaren akats informatiko baten ondorioz jakinarazpenak okerreko helbidera bidaltzeak ondoreak izan beharko zituzkeen, eta lehenengo eskaera egin zuenetik (2016ko martxoa) zegozkion bi prestazioen atzerakinak aitortu beharko zitzaizkiokeen.

-Bestalde, etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpenean jasotako arrazoiei dagokienez, Arartekoaren ustez, etxebizitzarako prestazio osagarriaren ukapena ez litzateke izango zuzenbidearen araberkoa, egiaztatu baita gizarte-bazterketako egoeran dagoela herritar hori. Etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpenean, Lanbidek ez du azaldu zergatik jo duen interesdunak etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun izatea eragozten dioten diru-sarrerak dituela. Aitzitik, legezko manua bakarrik aipatu du. Hortaz, erakunde publikoak ez du justifikatu kexagilea ez dagoenik premia-egoeran, eta horixe da etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko eman den arrazoi bakarra.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —Arartekoa sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako gomendioa egiten zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

## GOMENDIOA

Arartekoak Lanbideri gomendatzen dio berriz azter dezala kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskaeran atzera egin zuela jotzeko ebazpena, dokumentazio-errekerimendua okerreko helbidean jakinarazi ziotela-eta, eta berriz azter ditzala etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko arrazoiak, betetzen baititu prestazio horren onuradun izateko betekizunak.

